

# Denbora-


## 1 Hizki salda

Saldari zapore goxoa emateko, zortzi hitz bota ditu lapikora gure sorginak. Hizki saldan ezkutatuta dauden hitzak bilatu beharko dituzu!



## 2 Giltzak

Giltza guztiak nahastu zaizkio Joni, eta zure laguntza behar du. Ea sarraila multzo honetan bi berdin topatzen dituzun?



1	hiritarra	a	atsekni
2	orokor	b	raxoirre
3	saiakera	c	arratirih
4	hauteskunde	d	arekaias
5	errioxar	e	rokoro
6	inkesta	f	ednuksetuah

## 3 Hitzak osatu

Gai izango al zara ezkerreko hitz nahasi horiek txukundu eta eskuinean dagokiona aurkitzeko?






# - pasak

Erantzunak: 2.-1 eta 3. 3.-1-c, 2-e, 3-d, 4-f, 5-b eta 6-a. 4.-d. 5.-Martinek 4.000 kilo altxatu ditu guztira. Pellok, bertiz, 4.425 kilo.

## 4 Puzzlea

Pieza bat jartzea baino ez zaio falta Nagoreri hainbeste lan eman dion puzzlea osatzeko. Lagunduko al diozu geratzen zaion zuloa betetzen? **Asmatu zein pieza falta den.**




	Martin	Pello
Yellow square	7 aldiz	5 aldiz
Pink square	8 aldiz	9 aldiz
Green square	4 aldiz	10 aldiz
Blue square	6 aldiz	5 aldiz

## 5 Harri-jasotzaileak

Martin eta Pello nor baino nor gehiago aritu dira harriak jaso eta jaso. Ahaleginaren ostean, ez dute indarririk pisu gehien nork altxatu duen zenbatzeko. **Lagunduko al diezu batuketekin?**

### jolasa



### Lurreratze perfektua

Indarra neurtzen ikasteko joko paregabea da honako hau. Bakoitzak bere hegazkin berezia jaurti beharko du. Ea nor den pilotu trebeena!

- Jolasean hasterako, jokalaria bakoitzak (bi edo gehiago) hondarrez betetako hiru edo lau poltsa txiki prestatu behar ditu. Hondarraren lekuan, lekaleak ere erabil daitezke; dilistak, esaterako. Horiek izango dira gure hegazkin bereziak.
- Ondoren, lurrean marra bat egin eta hiru bat metro tara mahai txiki bat jarri beharko dugu. Horixe izango da aireportua.
- Banaka-banaka jokalaria edo pilotu bakoitzak poltsatxo bat jaurtiko du marra jarri dugun lekutik mahaira. Poltsa aireportura botatzea eta han geratzea izango da pilotuen helburua.
- Lurreratze on bakoitzeko puntu bana jasoko dute jokalariek. Hamar puntu lortzen dituen lehenengoa izango da piloturik onena!